# Maria Luisa Arrillaga

*Arriarango maistra*



Maria Luisa Arrillaga Arrillaga Arriarango eskolako maistra izan zen 1934tik 1957ra. Gaur egungo Arriarango aitona-amonengan eragin handia izan zuen eta ipuin honetan jaso nahi izan ditugu berari buruzkoak. Maria Luisari buruz dakizkigunei, Aratz Aranbururen ikerketako lanak eta fikzioa gehitu dizkiegu komiki honetarako gidoia osatzerakoan.

## Gidoiaren egilea

Intxaurpe, 2013ko azaroan.

## Argazkiak

Mikel Mendizabal, elkarrizketatuak eta guregipuzkoa.net

## Komikia

Eñaut Tolosa.

## Maketazioa

TANDEM Komunikazio eta Diseinu Grafikoa.

## Gidoia osatzeko elkarrizketatuak

Angela Lizarralde, Joxepa Lizarralde, Purita Aizpurua, Maria Etxeberria, Jose Miguel Mendia, Modesta Mintegi, Juana Eguren eta Frantziska Mintegi.

## Eskolaren planoak

Gregorio Eguren eta Irati Eguren.

## Bibliografia

Garmendia Larrañaga, J.F. (2001): “Gipuzkoako auzo-eskolak. 1930-1938”, TANTAK, 26, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, 61-77 orr

Aranburu Intsausi, A.: Arriarango historia.


Arriaran, 1312. urtea
Tenplarioen ordena desegin zenean, Arriarango monasterioa bere ondasun guztiekin batera, Gaztelako erregearen esku gelditu zen.
1369. urtea
Gaztelako Enrike II erregeak orduko gerra irabaztea lortu zuen. Lope López de Oria armada garailean borrokatu zen eta Arriarango monasterioa eskatu zion erregeri.
Nik Enrike bigarrenak, Gipuzkoako Jauntxo izendatzen zaitut.
Ezkio-Itsasoko artxiboen arabera, tenplarioen ordena bertatik desagertzean, Gaitán de Ayala,Villafrancako kondearen arbasoen esku geratu zen Arriaran.
Beraz, litekeena da bi familia horien artean ahaidetasunen bat izatea. Gaitandar kondearen itzala XX. mendera arte luzatuko da.


Donostiako hilerria, 1994an
Ze arraio dao hor?
Oso zaharra emateko du.
HEMEN HILOBIRATUA
ARRILLAGA-TAR
MARIA LUISA
MCMXCIV-III-XIV
Zein zen Maria Luisa Arrillaga?


1932. urtea
Jesus Maria eta Joxe! Onartu egin naute.
Nola joango naiz Arriana? Zeinek lagunduko nau?
Gipuzkoako auzo-eskoletako irakasle probintziala izateko oposizioak egin ziren. Hautagaiek lehen hezkuntzako maistra titulua izan behar zuten eta euskararen gaitasun proba pasa behar zuten.
BEASAIN
Ez zen beharrezkoa honaino etortzea.
Beasaindik Arriana bakarrik joateko bide luzea duzu.
Luze egingo zaizkit gauak apezetxean zu gabe.
Zakur honek zeozer dakar ahoan guretzat.
ARF!
Egurrezko kutxa zahar bat ematen du.
Kaxa bat da, akaso altxor bat du barruan.
Eskuizkribu zahar bat da. Euskaraz jarriko duzu?


1311. urtean, kutxa eta eskuizkribua lapurtu eta ezkutatzeagatik, hilketa bat izan zen.
Non gorde duzu nire eskuizkribua?
Ez duzu inoiz jakingo. Traidorea!
1934-1936 urteak
Maria Luisa Arrillagak 1936an 10,5 pezeta eman zizkion Frente Popular ezkerreko alderdien batasunari.
Arriarango eskolan euskara erabiltzen zuen.
Aldapeko sagarraren...
...adarraren puntan...
Joxemiel, hartu Xabiertxo eta hasi.
Umiei euskaraz irakurtzen erakusteko...
1939-1957 urteak
Frankismoak botere osoa bereganatu zuenean egoera erabat okertu zen.
Maria Luisa apaizetxetik Salbatoreko bentara pasa zen.
Euskara debekatua izan zen eta Maria Luisak gogoko ez zituen zigorrak ere jarri behar izan zituen.


No hablaré más en euskera
No hablaré más en euskera
No hablaré más ...
Maria Luisak zigortu egin hau, ala?
Oraindik ez.
Bihar inspektorea etorriko da. Badakizue bakoitzak zer egin behar duzuen.
Oso ondo, Joxepa. Baina badakizu, zer? Beste kolore bat gehitu, zuk nahi duzuna. Marroi hau zer moduz?
Salbatoreko apeaderoan
Familiaren osasuna zela eta, sarritan joaten zen Maria Luisa Donostiara. Aita 1956an hil zitzaion eta hiru anaietatik bi 1958an eta 1960an.

Arriarango maistra izateari utzi eta 1957an omenaldia egin zioten auzoan.





Ikasleei bidalitako euskarazko oharren idazkeran Maria Luisaren euskaltzaletasuna agerian geratu zen. Bere izena ere euskaratu egin zuen.



1960ko hamarkadan, mugimendu abertzale eta euskaltzalea esnatu egin zen.

Bukaerara arte Arriarango ikasleekin harremana mantendu zuen Maria Luisak.




Gogoratzen zara ikurrinaren koloreak bordatu nituenean?
Gauza horiek egitera behartuta nengoen.
Maria Luisa 1994ko martxoaren 14an hil zen.
Nik ezagutu dudan maistrarik onena izan da.
Hemen gehienak arriarandarrak eta igeldoarrak gara.
Aspaldi esan zenidan eskuizkribu hau euskaratzeko. Ezin izan nizun eman.


1311ko gertaera kontatzen du eskuizkribuak. Latinez dago. Jakin dudanez, Salbatoren tenplarioen monasterioa zegoen.
...eta Aita santu eta Gaztelako erregeren artean gatazka sortu zuen, bertako ondasunak zirela eta.
Eskuizkribuak bidali gabeko gutuna ematen du. Garaiko Gaztelako erregeri dago zuzenduta. Honela dio:
"Gaztelako Fernando IV erregeri, Agur gorentasun: Clemente V. Aita santuak etsi egin beharko du. Fraideak eta soldaduak hemendik ateratzeko lanean ari naiz. Horrela, berorren esku geratuko lirateke hemengo ondasunak. López de Oria etxekoen babesa lortu dut, gainera. Arriarango lurren jabe aproposak izan daitezkeela uste dut. Gauzak gehiago mamitutakoan izango du berorrek nire berri. Bikuñako Antxo, 1311ko ekainean"




Eskolaren behe oina




Eskolaren lehenengo oina

Arriaran mendearen erdi aldera, apaizetxea, eliza eta eskola.



Eskolaren gaur egungo argazkia.





Maria Luisa Arrillagaren omenaldiko bi argazki, 1957an



Maria Luisa Arrillaga Arriarango neskekin.



Maria Luisa Arrillaga agintariekin.

intxaurpe
elkartea




Marrazkiak: Eñaut Tolosa / Maketazioa: Tandem